

Joan  
Hartzak, erlojuak eta beste piztia batzuk





**Patxi Zubizarreta** I (Ordizia, 1964). Euskal Filologia ikasketak egin zituen eta harrezkero Gasteizen bizi da. Haur eta Gazte Literaturan ez ezik (*Eztia eta ozpina*, *Pantaleon badoa*) helduen literaturan ere arrakastaz idatzi ditu hainbat liburu (*Jeans-ak hozkailuan*, *Mundua lo dagoen bitartean*). Itzulpengintzan ere jarduna da, bereziki mundu arabiarreko lanak euskaratzen (Nagib Mahfuzen *Mila eta bat gauen gauak* edota Abdela Taiaren *Salbazioko armada*). Aspaldian, ikus-entzunezkoak eta literatura uztartzeko ahaleginean, zenbait ikuskizun edo performance bideratu ditu (*Zikoinaren hegaldia*, *Hamar mezu eta dei bat*).

Patxi Zubizarreta

# Joan

Hartzak, erlojuak eta beste piztia batzuk



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2010eko azaroa

© Txalaparta  
© Patxi Zubizarretak testuarena  
© Joserra Senperenak musikarena  
© Thomas Canetek irudiena  
© Martin Tejeriak  
eta Maddi Oihenartek ahotsarena

GRABAKETAK:  
Xabier Mugicaren atelierrean  
2010eko ekainean (Joserra Senperena)  
Xiberuko bozaren estudioan  
2010eko irailean (Maddi Oihenart)  
Elkar grabaketa estudioan  
2010eko irailean (Martin Tejeria)

NAHASKETAK:  
Jean Phocas eta Víctor Sánchez

DVDAREN MONTAKETA:  
Eguzki bideoak

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.  
Navaz Vides, 1-2  
78 Posta-kutxa  
31300 Tafalla NAERROA  
Tel. 948 703 934  
Faxa 948 704 072  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Eteban Montorio  
AZALEKO ARGAZKIA  
Thomas Canet

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN  
978-84-8136-596-2

LEGE GORDAILUA  
BI. 3.055-10



# 1. Amaliaren fadoa



Erabakiak guk geuk hartzen ditugulako  
ilusioa bizi dugu baina, izan, damuak  
baldintzatutako patuaren iruzur baino ez dira.

*Trenbideko hautsa kentzea bezala*

CARLA CAEIRO

‘MONSIEUR PIRES, MARIO PIRES?’. Deia jasotzean, oha-  
zala bazterturik, ohe ertzean eseria zegoela esan  
zidan; hori, eta soinean elastiko beltz bat besterik  
ez zeukala. Bere baitara bildua zegoen, nekeak bai-  
no gehiago halako apatia batek sorgortua, eta, izan  
horregatik izan komunetik zabaltzen zen ile lehorgailuaren harrabotsagatik, doi-doia entzun zuen telefonoa. Orduan, ufaka altxatu, eta hasperen etsitua egin zuen bere izena zekarkioten hitz haiek entzutean. ‘Monsieur Pires, Mario Pires?’. Eskegitzekotan egon zen. Oso gutxi falta zen gaueko hamabietarako, telefonoko ahots hondoan zurrumurru nardagarri bat entzuten zen, eta apenas jabetu ahal zen frantsesez mintzo zitzaizkiola. Eta eskegi egingo zuen baldin eta, akaberan, ohartu izan ez balitz benetan beraren izena zela emakumezko baten hizketa molde arrotzak ahoskatu zuena: ‘Monsieur Pires, Mario Pires?’, erre askorekin. Artega, buruari hizkuntzaren mekanismoa pizteko astirik eman gabe, ‘Yes’ urrikalgarri bat atera zitzaion, ozen, eta bien bitartean komune-

ko atea jo zuen. Hirugarren aldiz entzuna zuen berari buruzko galdera telefonoaren interferentziarekin, lehorgailuaren harrabotsarekin eta atea erdizka zabaldu zuen emakumearen hitzekin batera: 'Oraintxe amaituko dut'. Baiezko inkontzientea egin zuen buruaz, imintzio bat ere egin zion eskuin eskuaz komuneko atetik agertu zitzaion emakume biluziari, lehorgailua itzal zezan, eta 'Sí' atera zitzaion oraingoan, eta 'Oui' lotsati bat. 'Bai, ni naiz, Mario Pires'.

Telefonoko elkarrizketa anabasa hutsa izan zela esan zidan; hori, eta frantsesa, portugesa, ingeleza eta gaztelania zipriztinduz harilkatu zutela, eta gizonak imintzioka jarraitu zuela solaskide ezezagunari bere hitzak hobeki agertze aldera. Emakumeak, gizonari begirik kendu gabe, egongelako intimitatean beste norbait sartua zelako sentsazioagatik edo, tanga beltz bat jantzi zuen gizona egon zen ohe ertzean eseri aurretik. 'João?', atera zitzaion gizonari eta, berehala, ahopeka, emakumeari paper mutur bat eta luma hartzeko eskatu zion. Honek kopeta ilundu, eta aldarte txarrez ekin zion bazterrak miatzeari. Laster, idaztekoak topaturik, haur denborako diktaketa baten gisara kopia-tu zuen gizonaren esana: *Pays Basque, Bayonne, Mauleon, Sainte-Engrâce*, eta segidan, *Iruri, Maria*. Gizona berehala ohartu zen palindromoaz: Iruri; solaskideari telefono zenbakiaz galdegin behar ziola pentsatu zuen deitura ezker-eskuin eta eskuin-ezker irakurri bitartean: Iruri; baina laster ohartu zen zenbakia luzeegia zela eta telefonon atxikia behar zuela, memorian jaso. Kontentzimendurik gabe 'Obrigado' esanik, telefonoa itzali, eta tranpalahara etzan zen emakumeak utzi

berria zuen ohean. ‘João?’ galdegin zion emakumeak; ‘João’, erantzun zuen gizonak. Isilune trinako baten atariko azken hitzak izan ziren, soil-soilik alboko gelako haur baten eztulak hautsia; hori ere esan zidan, eta gero ekaitza piztu zitzaie, halaxe adierazi zidan: ‘Ekaitza, badakizu’.

—Sentitzen dut, Adela, baina haren bila joan behar dut, Frantziara... Salazarren tonerra! Lehenbailehen...

—Bila...? Orain, bila...!? Zer du, ba, oraingoan? Ezin gaituzu bakarrik utzi... Etxea obretan eta ni bi haurrekin! Hemen... Ongitxo dakizu: Isabela-ekin ez dut nahikoa. Zer du, zer du ba orain kin-kilimanko horrek?

—Ez dakit. Emakume baten ahotsa zen, frantsesez, eta João oso gaixorik dagoela ulertu diot, eta lehenbailehen joateko. Ez dakit ongi ulertu ote diodan, baina uste dut ez duela ospitalera joan nahi...

—Ospitalera joan nahi ez...? Egoskorra da, gero! Edonola ere, gure etxeetan sartzeko eta gure bizitzak eteteko, ez zaio abilezia falta... Eta Margarida? Zergatik ez dio arrebari deitu?

—Ez jakin zergatik. João nire zenbakia emango zion. Edozein modutan, Margarida Bostonen dago, zuk ere ongitxo dakizu. Iraila arte ez da itzuliko. Larrialdi bat da eta, benetan, ez dut uste fribolizatzeke unea denik.

—Ez, noski, baina beti anaia zaharrak kaka garbitu behar... Onartu beharko duzu.

—Burua lehertzeko zorian daukat. To! Anaia larri dago, ez al duzu ulertzen? Ezin dut pentsatu ere egin eta, mesedez, ez izorratu gehiago!



- Izorratu? Nik? Ongi entzun al dut? Horixe behar genuen! Zure anaia dabil atzera gu izorratzen, sarkin hori...
- Bai, bai, izorratu, zuk! Segi ekin eta ekin... Horrexi deitzen zaio laguntzea... Gogaikarria zara.
- Gogaikarria, ni?
- Orain ere komunean babestu behar al duzu? Arazoei aurre egin behar zaie, eta arazoak orain João izena du. Mesedez, zabaldu atea! Itzali behingoz traste zahar hori! Zabaldu atea eta har dezagun erabaki bat.
- Umeak esnatuko dituzu. Papaoa! Kontu apur bat!
- Popatik denak, utikan denak! Pues, pues, pues!

Halakoxe kalapita izan zutela esan zidan, ekaitza alegia; hori eta, handik gutxira, ilea lehortutakoan emakumea komunetik irten, eta harritua geratu bide zela senarra egongelan ez zegoela ikusirik. Baina gizona ordurako kaleetan barrena zebilen, ordu arteko nekeari eta apatiari amorrazioa gaineratzen zitzaiera. Ustekabeko deia jaso ostein, kalera jo zuen ustekabean, zegoenetan kasik, eta noraezean. Luze gabe, are noragabetuago sentitu zen *Casa do Misericordia* baten atarian ikusi zuen eskale multzoarekin: entzuna zuen eliz arkupeetan edo kanpinetan amaitzen duten aita baten baino gehiagoren historia, gero eta kontzientea-go zen une batetik bestera hondamendia etor daitekeela ustez ziurtzat genuen gure mundutxora, eta eskekoen talde dekadente hartan aita langabetu eta dibortziatu bat baino gehiago egongo zela pentsatze hutsak izularritu egin zuen. Auzune hartan jende gutxi zebilen, batzuk zabor ontziak miatzen, bestetzuk zakurra pasiatzen, bai-

na ohartzerako Almirante Reis abenida osoa jait-  
tsirik, Rossio aldean zegoen, eta hango argitasu-  
nak, hango bizitasunak ezustean harrapatu zuten.  
Uztaila azkenetan egon arren, ez zuen espero,  
antza, hirigunean hainbesteko jendetzarik, baina  
batik bat ez zuen han agertzea espero. Eta, egon,  
han zegoen. Elizgizonek haragiaren plazerei nola,  
halatsu egiten diote uko gurasoek gauari, eta kasik  
plazerei; hori ere aitortu zidan, begiak begietan,  
eta haurrengandik kanpo ere bizitza zegoela, bizi-  
tzak jarraitu egiten zuela.

Ez zekiela zergatik izan zuen horren erreakzio harri-  
garria, erantzun zidan, ihes antzeko hartaz galde-  
gin nionean; hori, eta beharbada ez zela horren  
harrigarria ere. Egun txarra izan omen zuen. Goiz  
erdian, ezezagun baten sms estrainio bat jaso zuen:  
«Seguruenik jakingo duzue, baina badaezpada ere:  
Federicoren aita hil da». Izu laborriak hartu omen  
zuen, panikoak. Gizonaren semearen izena da Fede-  
rico... Eta panikoak ez zion pentsatzen utzi: txan-  
txa bat iruditzen zitzaion, baina makurkeria han-  
diaz egina inondik ere. Egun txarra izan omen  
zuen eta gaueko deiarekin beraren nahasmenduak  
goia jo zuen. 'Eguna makur hasi zitzaidan, eta are  
makurrago amaitu'. Ez, ez omen zekien zergatik  
izan zuen horren erreakzio adierazgaitza, halaxe  
definitu zidan: 'Adierazgaitza'. Baina beharbada  
ez zen horren harrigarria ere. Eta, kontuak kon-  
tu, ordurako kanpoan zegoen.

Gaugiro ederra egiten zuela esan zidan; hori eta,  
hala ere, tokiz kanpo sentitu zela, kaiolara ohitu,  
eta ustekabean askatu duten txoriñoaren gisara.  
Beharbada horrexegatik, konbultsiboki ari zen

ateratzen etxearekin lotzen zuen eta zilbor hestea zitzaion sakelako telefonoa. Emakumearen deiren baten zain. Baina hark deitzen ez. Hamai-ka taberna eta kafe kanpotik ikusmiratu zituen; sartu, ez sartu ibili zen, bat hautatu ezinik. Akaberan, ezezaguna zitzaion kafe etxe batean sartzera deliberatu zen; besoak barran antxumatu, eta botila bat ardo zuri eskatuko zuen baldin eta ezin patetikoago sentitu izan ez balitz, baldin eta zerbitzariak eta zenbait bezero bakarti begirik kendu gabe zeudela sentitu izan ez balu. Hura berarentzako eztokia zelako uste osoarekin, kafe etxetik irten eta, aurrerago, nekadurak berak bere orde ez erabaki zuen terraza batean eseri behar zuela, eta luze egon zen zerbitzariaren zain, harik eta ohar bati erreparatu zion arte: «Mahai zerbitzuri-rik ez». Salazarren tonerraka altxatu zen eta noragabeturik jarraituko zuen beste terraza batean emakume beltzaran bat lanean ikusi izan ez balu. 'Botila bat ardo zuri, eta ibuprofeno bat, mesedez', eskatu zuen bezeroen arteko anonimatoan egokitu zenean, sakelako telefonoa mahai gainean utzirik. Eta poztu egin zen zerbitzari beltzaranak ez ziolako galdegin 'Botila bat ala kopa bat?', eta poza handiagotu egin zitzaion Monte Mayor ardo alentejoarra ezin hotzago atera zionean. Laketuxego sentitu zen han azkenik, eta bat-batean ohar- tu zen atsegina zela, askatasun estreinatu berri hartan, orain bera izatea denbora pasa besteei begira zegoena. Eztarria lehor baino lehorrago baitzuen, hurrupa luze pare batean hustu zuen lehen kopa eta lurrera bota zuen pilula, bestorduz zigarrokinak nola. Telefonoa hartu zuen bien bitartean, behin, birritan, hirutan, eta nahigabea berri- tu zitzaion dei gehiago ez zeukala ikusirik. Azke-

nak miatzen hasi, eta, 'João, zakilberde alaena!', atera zitaion zenbaki ezin luzeago bat bistatzean, eta bortitzezi sakatu zuen telefonoa itzaltzeko tekla gorria: guztiz deskonektaturik egoteko premia sentitu zuen. Azkar samar hustu zuen botilak lagundurik, madarikazio gehiago ere jaulki zituen, denen kontrakoak, baita bere buruaren kontrakoak ere, eta whisky bat eskatu zuen. Egia esatera, batik bat emakume beltzarana hurbil zedin eta haren irribarre zabala berriro ikustearren eskatu zuela; hori ere aitortu zidan.

Erabaki bat hartu beharra zeukala esan zidan; hori, eta guztiz ezindurik zegoela, guztiz blokeaturik. Alde batera, João zegoen, harengana joan edo ez erabaki beharra zeukan; baina, beste aldera, ezer baino lehen gau hartan zer egin argitu behar zuen eta, inondik ere, beraren nekadurarekin, beraren nahasmenduarekin, une hartan erabaki gehiegi ziren. Artean dei malapartatua egin zuenaren ahoskera arrotzaren oihartzuna entzuten zuen, edota emaztearen hitz zapuztuak, 'Papao', 'Kinkilimanko', eta akaberan 'Monsieur Pires, Mario Pires?' hitzak berriro zitzaizkion.

Gaueko dinamika burbuilatsu hartan lekukorik pasiboena zela esan zidan, ikusezinena, han egonik ez baitzegoen han; hori, eta harritu egin zela aurrena erlojuak eta harribitxiak eta, hurrena, João esaten zuen bezala, pipatzekoak eskaintzera inguratu zitzaizkionean. Telefonoa bezalaxe zegoen, deskonektatua, guztiz blokeatua, eta hala ere lehengoz bihozkada izan zuen gau hartan ez zela etxera itzuliko, ez zuela itzuli behar, etxera edo apartamentura; horixe zela inkontzienteki hartu

zuen lehen erabakia. Egia zen, emakumeak esan bezala, João anaia ttikia besteren lapikotan ogia sartu zalea zela, dohaina zuela besteren bizitzen norabidea aldatzeko, baina bikote barneko arazoan gainetik zegoen ezbehar bat sumatzen zuen, larrialdi bat.

‘Pipitaki, papataki’, esan zidan gero; hori, eta ‘Zer da airea bezain ikusezina izan arren, harria bezain gogorra eta elurra bezain hotza dena?’. Ezin ukatuko dut hasiera batean ustekabeen harrapatu ninduela, eta antzeko zerbait sentitu nuela, kafe bagoian, bat-batean *Nortasunaren test tibetarren* kontuarekin hasi zitzaidanean. Bai, inondik ere desegokia iruditu zitzaidan bere bizitzaren kontakizuna igarkizun batekin apurtzea, eta hala ere, ustekabeen, aliritzi hasi nintzen erantzunak botatzen: ‘ura’, ‘izotza’, ‘kristala’ asmatu nuen hirugarrengoa (testaren kontua amaitu, eta jostetak noizean behin ongi daudela onarturik, nik ere *I Ching* teknika baliatu nuen gero berari beste joko bat proposatzeko, eta damu dut proposatu izana, baina hori beste upel bateko garagardoa da). ‘Hori xe, kristala!’, denborak bizitzan kristal bat ipinia ziola esan zidan haur baten irribarre maleziatsuarekin, ‘Baina João-ri buruzko deia jaso aurretik, egia esan’; hori, eta, topikoa barkatzeko eskatzearekin batera, eulien gisara behin eta berriro kristal haren kontra egiten zuela, eta ezinezkoa zitzaiola aurrera egitea. Ustez, dena aditzera ematen zuen irribarre batez erantzun nion nik.

‘Pipitaki, papataki’, jarraitu zuen nire ezinegona areagotuz; hori eta, ‘Ekuazio bat da: aukerak zati damua gehi  $\pi$ ’. Baina niri pentsatzeko astirik eman

gabe, 'Erabakiak, erabakiak!', erantzun zidan. Eta ekuazioko  $\pi$  horrek zer esan nahi zuen galdegin niolarik, esan zidan pitokeriak zirela: 'Edozein erabaki harturik ere,  $\pi$  zeinuak gogorarazten dizu beti, egokiena eta zuzenena izanik ere, hutsala eta hutsaren hurrengoa izango dela, eta bizitzaren zirimolak noranahi eramango zaituela pipirika'. Horrekin batera, gaineratu zuen istant batez aukera izpi bat sumatu zuela gertakari haietan: beharbada, bide batez, egoera nahasgarri hura baliatu, eta bere bizitzaren zenbait kontu birplanteatzen ahal zituen.

Mahaitik altxatzean botila ardoa eta bi whisky ordaindu zituela esan zidan; hori eta, bulkada bati jarraiki, zerbitzariarentzako eskupekoa uztearekin batera, ordain-txartelean telefono zenbakia idatzirik utzi zuela bere izenaren alboan. Horren ondotik, kafe etxetik urrundurik, kantoi batean gelditu zen emakumea azpiltxoak jasotzen ikusteko, beraren zenbakiaz ohartzen ote zen jabetzeko, baina hura mahai artean presatua baitzebilen, ezin izan omen zuen halakorik ziurtatu. Nerabe baten gisara sentitzen zela, baina aztoramendu handiegirik gabe, tren geltokira inguratzeraz deliberratu zen, Santa Apoloniara. Eta beharbada bihizkade izan zuelako gau hartan ez zela *Tranquillidade* apartamentuetara itzuliko –lehenengoz aipatu zidan beraren behin behineko bizitokiaren izena–, bide batez galdera egin zuen harantzean zeuden hoteletan, baina uztail amaiera izaki, eta asteburua ate joka, denak ala denak ere beterik topatu zituen. Eta orduan nik beraren jarduna eten, eta esan nion tamala zela nirekin topo egin ez izana, ordutsu hartan ni ere kalerik kale

bainenbilen, baina handik urrun, Chiado inguruan alderrai. ‘Patuak tren berean elkartu nahi izan gaitu, baina imajinatzen al duzu, bart, biok terraza berean eseri izan bagintu?’. Istant batez, gizonak begirakunea jaitsi, eta nire bularraldeari josi ziolarik, halako zorabio batek hartu ninduen; alditxarturik altxatu nintzen komunera joateko.

‘Egin kontu gizonen komun batera sartu eta, txizaginean ari zarela, argia itzaltzen zaizula, tabernan xuhurrak direlako edo, besterik gabe, zure aurretik sartu denaren argialdiarekin hasi zarelako’, esan zidan komunetik itzuli nintzelarik; hori, eta ‘imajina ezazu zure egonezin horretan beste bakarren bat sartu, argia piztu, eta sekulako ikaraldia hartzen duela zu, han, ilunpetan, auskalozertan ikustean. Izan ere komunetakoa, batik bat gizonena, oso giro estrainioa baita. Egin kontu, estualdi batean, azken unean komun bat topatu, hara sartu, baina ez dagoela paper higienikorik, edota alboan dagoenaren arnasbeharrak eta gainerakoak entzutera behartua zaudela. Halakoxe giroa esan nahi dut...’. Hori ere esan zidan eta berriro harritu egin ninduen bere konparazio eskatologiko samarrarekin. Gizonak argitu zidan *komun sentimendua* deitzen ziola horri, ‘Bizitzaren aurrean deseroso, tokiz kanpo, ezdenboran sentitzeari’, eta *komun sentimendu* horrexek hartua zegoela adierazi zidan, horrela sentitu zela geltokira bidean topatu zuen giro dekadente hartan; baina sentimendu horrek askoz lehenagotik erasaten ziola. Atzera kontaktari loturik, geltokira bidean taberna zulo batetik emakume bat irten, eta larrutan egin nahi ote zuen galdegina ziola esan zidan; hori eta, galderak –edo egoerak?– bere ego-

nezina areagotu zuela: edozein bazterretatik emakumearen bizkarroia edo beste edonor irten, eta labana lepoan ipintzen ahal zion. Baina laster bistatu zuen geltokia eta, haren kanpoaldean, etorkinen eskulturaren bazter batean kartetan ari ziren taxizaleak. Eta niri gustatu egin zitzaidan, barne giro ilunarekin ibiliagatik, gizonak xehetasunak nabarmentzeko erakusten zuen jokamolde hura.

Surexpresoa arratsaldeko 16:01ean irteten zela jakinarazi zioten, ordutegiaren bitxikeria nabarmendu zidan; hori, eta Hendaiara baino ez zela iristen, aspaldian kendu baitzuten urtetan hainbat eta hainbat etorkin garraiatu zuen Lisboa-Paris linea. Hendaian, hala ere, Baionarako trenan hartzten ahal zuela; hori ere jakinarazi zioten, eta ordu-bete eskas baino ez zuela behar hara iristeko. Ez zidan erantzun hegazkinez ere joaten ahal zela adierazi nionean. Besterik gabe argitu zidan arbasoen gisara bidaiatu nahi zuela, eta une hartan ez zitzaiola bururatu abiatzen zen lehen trenan hartzea, Coimbrarako esate batera, lehenbailehen abiatzea alegia. Taxi bat hartzea eta apartamentura itzultzea ere ez omen zitzaion bururatu. 'Eskerrak, bestela ez zintudan ezagutuko', esan zidan, eta ezpainak atzamarrak inguratu zizkidan.

Geltokiko ingurumaritik lehenbailehen irten nahi izan zuela esan zidan; hori eta, pausu luzeka, hirigunera itzuli zela. Ez zuela gehiago hondoratu nahi edota, txarrean, bere buruari ahalik eta kontu gehien egin nahi ziola. Luze gabe, ezezaguna zitzaion *Terminus* hoteleko izarrak ikusi zituen, eta prezioari erreparatu gabe, disponibilitateaz galdegin zuen. Ez zen poztu baiezkoarekin eran-



tzun ziotenean eta, bai, aitzitik, 303 gelan –ordurako ez zitzaidan bitxia iruditu gelaren zenbakia nabarmentzea–, telebistapean, minibarreko armairutxo deskubritzean. Bourbon bat hartu zuen, miniaturazkoa, eta hurrupa bat jo ostean, mahai-ko papera eta luma eskuratu zituen. *Terminus* idatzi zuen. *Terminus*, besterik ez zitzaion atera. Komun desinfektatuegira joateko altxatu zen, eta, harantzean, hotelari buruzko propagandako liburuxka hartu zuen. Txiza egiteko komun ontzian eseri zenean, argibideak irakurtzen hasi, eta harritu egin zen hotelak eskaintzen zituen burukoen kartarekin. Gogoan ditut: *lepokoa*, *duvet*, *latex* eta *top*. Eta gogoan ditut, hain zuzen ere, oroitzen nuelako, Japonian, pertsona bakartientzako burukoak saltzen direla: beso babesle baten formarekin emakumeentzat, eta hanka bilduak itxuratzen dutenak, kuleroen erpin bat agerian, gizonentzat; baina gizonak ez zidan etenik egiten utzi. Telefonoa atera zuen gero eta ezin uka nahigabea hartu zuela: aurreko terrazako zerbitzariari zenbakia utzia zion eta, nahasmenduarekin, gailua piztea ahantzi! Ez zuen espero, baina haren deia jasotzeko aukera hutsak kilikatu egiten zuen; eta espero bezala pantaila geldo agertu zitzaion, dei bakar baten aztarrenik ere gabe, ezta emakumearena ere, eta une hartan norbait berataz kezkatu agertzea behar zuen, norbaitek berarekiko ardurarako erakustea. ‘Beharbada, azken batean, hilik nengoen...’, esan zidan, eta iruzkin hura ahoberoke-ria hutsa iruditu zitzaidan, *boutade* bat.

Aurpegia doi bat freskoturik, esan zidan atzera mahaira eseri, eta eskolan zigortu duten haurren gisara ekin ziola *terminus* hitza kopiatzeari:

*terminus, terminus, terminus*, maiuskulaz, haur saiatuaren idazkeraz, sendagile letraz..., harik eta dena marraz eta zirriborroz bete, eta papera birrin-  
du zuen arte; harik eta, errepikatuaren poderioz, hitza esanahigabetu zuen arte. Hori esaten ari zitzaidala, ezustean, tren bat bortitz igaro zitzai-  
gun kontrako norabidean eta, mugimendu are bortitzagoaren eraginez, trenbide paraleloko argi-  
tasun iheskor hark asaldatu egin zuen gizona. Kontaketa eten behar izan zuen. Begiak begietan gera-  
tu zitzaidan. 'Barkatu', esan zidan; hori, eta sentitzen zuela, bera peripatetiko irudituko zitzai-  
dala –oso gustuko ez dudan hitz hori erabili zuen–, eta seguruenik onena kontaketa nardagarria  
–adjektibo hori erabili zuen, hala ere– bere horretan uztea izango zela. Irribarre batez erantzun  
nion nik. 'Benetako historiak interesatzen zaizkit, benetako historien xehetasunak'. Uste dut orduan  
izan zela, orduan edo maparen kontua aipatzean bestela, Coimbrako Unibertsitatean Historia ira-  
kaslea zela adierazi zidanean. Eta nik ere begiak begietan, *vinho verde* xorta bat zerbitzatu nion,  
hondarra.

Hoteleko gelan galtzak erantzi zituela esan zidan; hori, eta orduan ohartu zela galtzontzilorik gabe zegoela. Egiaptapen horrek areagotu egin bide zion jaustasuna: horren kontzientzia ez izateak begien bistara ekarri omen zion nahasmenduaren handia. Elastiko beltz hutsarekin geratu zen ohearen ertz batean, ohazala alboko ohera erretiratu ostean. Gau hartakoa erabakia zuela pentsatu zuen, baina bihar-  
ramunekoa ikuskizun zegoela, eta seguruenik horre-  
xegatik ez zuela lokartzerik izan. *Tranquilidade* apartamentuetatik irten zenetik gutxi gorabehe-

ra hogeita lau ordu igaroak zirela nabarmendu zidan, eta ikaragarria dela bizitza nola alda daitekeen kasik une batetik bestera. Eta uste nuenan berriro ere *komun sentimendua* aipatzen eta bizitzaren aurrean deseroso sentitzen zela esaka hasiko zitzaidala, aitorten hau egin zidan: 'Eske-rrak noizean behin zu bezalako izar iheskorrek zeharkatzen duten...', eta esakune maiztu horrek sentipen kontrajarriak eragin zituen niregan.

Asko edana zela esan zidan; hori eta, hala ere, ez zegoela mozkorturik. Masturbatzen saiatu zen, mekanikoki. Bazekien horrek lasaitzen lagunduko ziola. Bakarrean ahalegindu zen, gau hartako zerbitzaria edo gogoko zituen emakume batzuk gogora ekarriz; telebistan ordaindu gabe ikusten ziren irudi elurtuekin gero, baina ezinezkoa gertatu zitzaion. Harrera gelako langilearen bitartez, emakume larrumerkeren bat eramatea bururatu zitzaion, lehen ikusitakoa ez bezalako norbait, baina ez zuen beste inorekin egoteko gogorik. Beste buruko bat eskatzeak ere ez zion ezer askorik lagunduko. Azken ordutako gertakariak berritzen hasi zen, akaberan, azken eszenak aletzen, eta lehenengo aldiz pentsatu zuen zakarregia izan zela bikotekidearekin, beharbada neurritz kanpoko erreakzioa izan zuela. Alabaina, ez zuen errudun sentitu nahi, 'Ez dut errudun sentitu behar', zehaztu zidan, eta begirakunea nire eraztunei josi zien arren, poztu egin ninduen horiei buruzko galdera ez egiteak.

Loezak gutxitan erasaten ziola esan zidan; hori eta, noiz edo noiz, hala ere, lehendabiziko loaren ostean esnatu egiten zela. Halakoetan, izaretan

jira eta bira hasten omen zen, altxatu ere egin behar izaten zuen, komunetik pasatu, ura edan eta, oherakoan, haurrak ikusi. Bai, loezak gutxitan erasaten zion, baina halakoetan bazirudien ez zela bere gorputzean kabitzen, barrena biderkatu egiten zitzaiola, zabaldu beharra zeukala, eta halakoetan ohekidearen presentzia eramanezina gertatzen zitzaiola, itogarria. ‘Nire espazioa kentzen didan arerioa iruditzen zait’. Iglu baten ametsa ere aipatu zidan, baina ez nion behar bezala ulertu. Txantxa txar bat eginez –aitortu beharra daukat–, apartamentuen eraikinak *Tranquilidade* izena izan arren, han hertsirik sentitzen zela esan zidan, klaustrofobia eragiten ziola, ezinegon larria. Beharbada horregatik zebilela horren erretxin, hitz hori erabili zuen: ‘erretxin’, edo ‘gozagaitz’ bestela. Emakumearekiko erreakzioa ere hortixe bide zetorkion, edo goizean jaso zuen sms nahagarri hartatik: ‘Eguna makur hasi zitzaidan, eta are makurrago amaitu’. Esango nuke kontu horiek, izan berritasunagatik izan larritasunagatik, guttiz asimilatu gabe zituela, eta bere burua artean bezperako gertakari likatsuetatik atera ezinik zebilela, alegia, oztopoak zituela nirekin bizitzen ari zen orainaldi iheskorra bete-betean sentitzeko. Niri, baina, kontrara gertatzen zitzaidan, eta ‘Baina ez zara logale...?’, erantzun nion, maleziatsu, bere ohe bagoira joatea proposatu zidanean. ‘Neure gelan har dezakegu...’.

Loezaren arrazoietakoa bat erabakia hartzeko unea berandutzea ere izan zitekeela esan zidan; hori eta, tarteka, gau minean bere bihotz pilpira azkarrek garbi entzutea. ‘Gertatu al zaizu noizbait?’, zuzendu zitzaidan, ‘baina ez halako esfortzu fisi-

ko baten ondotik, bestela baizik, ustez erlaxaturik zaudela... Halakoetan bihotza une batetik bestera geldituko zaizula pentsatzen duzu: azkenaz oroitzen zara, azkenak beldurtzen zaitu'. Uste dut orduan esan zidala portugesez *angústia* hitza latineko *angustus* hitzetik datorrela, eta toki estu eta hertsia adierazten duela; esango nuke orduan berriro ere aipatu zidala igluaren ametsa. Gogoe-ta haiek burutik uxatu nahian, telefonoa jaso zuen mesanotxetik: gaua pantailan. Eta berak zerbitzaria gogoan, eta João, eta Adela. Papao deitu ez zion, bada. Papao... Baina biraoa, berez, ez omen zitzaion horren mingarria. Serioski pentsatzen hasirik, mingarriagoa familia pantomima baten partaide izatea zitzaion, urteetan rol bera jokatu izana eta, areago, aurrerantzean ere jokatu behar izatea. Nekaturik zegoela aitortu zidan. Familiak elkarren kalkoa zirela esan zidan, elkarren fotokopia. 'Erdizka bizitzera ohitzen zara, erdizka, bizi-poz handiegirik gabe, zure bizimoldea plegatze-ra...'. Etxean obretan zeudela gaineratu zidan, eta horregatik zeudela apartamentuen eraikin ziztrin hartan. Etxea berregokitu beharrean, langela kendu, eta seme-alabei gela bana eskaini nahi izan zietela azaldu zidan; hori, eta beharbada berak ere bere barne gelak berregokitu beharrean zegoela. Nahasirik zegoela esan zidan, eta barkatzeko bere erredundantzia, bere itzulinguruak. Baleki, topikoa izan arren, niri zenbat gustatu zitzaidan barne gelak berregokitzearen kontu hori; baleki nik inbidiaz begiratzen niola, aukera hori zeukalako, eduki...; baleki beraren konpartimendua –konpainia– oasia zitzaidala, estutasun hark hurbiltasuna indartzen zidala.

Gero berriro ere kontaktari lotu, eta esan zidan, sosegatu ezinik, ohetik altxatu zela; hori, eta mahaira eseririk pantomima idatzi zuela arestiko *Terminus* hitzaren ordez, eta monotonia, eta asperdura, eta jaustasuna, eta gorrotoa. João idatzi zuen hurrena. Sintrako jauregia ezagutzen ote nuen galdegin zidan, eta ba ote nekien portugaldarrek *Seteais* esaten diotela. ‘Bai’ eta ‘Ez’ erantzun bainion, esan zidan frantsesek Portugal inbaditu zutenean hango edergailu eta aberastasun guztiak lapurtu zituztela, eta horrek herritarrengan sekulako nahigabea eragin zuenez, harrezkero *Seteais* edo *Zazpi Aieneen Jauregia* deitzen diotela. Etxean, bakkarrean zeudela, emakumeak ‘*Seteais*’ esaten zion João-ri, eta ‘*Seteais*’ idatzi zuen gizonak. Bi bat urte ziren anaia ttikiak Pirinioetara alde egin zuela, ustez eta tesia egitera Erromanikoan deabruak dituen errepresentazioei buruz, gabonetako zorion postal bakanak behinik behin handik jaso zituztela eta, horiek salbu, harrezkero ez zutela haren berririk izan. Amak, oster, joan zenetik Sebastian deitzen zion João-ri, Afrika iparraldean egingdako espedizioaren ondotik itzuli ez zen erregearen gisara. Baina amak jada ez omen zuen bereizten nor zen nor, eta gainbehera horretan, gizonaren ustetan, João-ek eragin nabarmena izan zuen. ‘Haren begikoa izan da beti...’.

Oso gazterik, unibertsitateko ikasketak amaitu ere gabe, anaia ttikiak pintura sail batekin sari nazionala eskuratu zuela esan zidan; hori, eta erakusketak *Postmoderniako deabruaren mozkortuak* izenburua zuela –bitxi iritzi nion tesiak nahiz erakusketak deabru hitza agertzeari–. Baina saria jasotzeko ekitaldian berriro ere mozkortu zen,

pasa-pasa eginik agertu omen zen, eta, ‘Ongi etorri infernura’, oihukatu bitartean, ikusleriaren gainera pintura gorritz beteriko globoak jaurtitzeari ekin zion, tartean kultura ministroaren gainera: ‘Gucciren soineko bat zeukan, hortik atera kon-tuak’. Gertakariak telebista guztietan agertu ziren, handiki askoren modelo zipriztinduak eta piura barregarriak nonahi argitaratu ziren; koplak atera zizkioten anaiari eta harrezkero *Artearen etsai* ezizena geratu zitzaion. ‘Bere buruari harrika egin, eta, esan gabe doa, gainbehera etorri zitzaion’. Harrezkero João laguntza eske joaten zitzairen, gero eta sarriago, eta bera izan zen bere bizitzaren hondamendiaren eragile nagusia: arte galeria bat zabaldu nahi zuela, best-sellerra izango zen liburu baten proiektua zela...; eta, gero eta okerrago, oraingo honetan zaldi negozio bat zela, Errusiatik etorritako karga ontzi bateko ez-tia erosteko proposamena zela... Aitak ere uko egin behar izan zion herentzia aurreratzea eskatu zionean: egunen batean gurasoen etxea anaia zaharra eta arrebaren artean banatuko zuten; horren truke, Joãok bitartean gurasoen aurrezki gehienak jasoko zituen. Gizonaren ustetan, aitak ongi jokatu zuen, baina bi anaien arteko harremanak hondoa jo zuen eta Joãok, egun batetik bestera, Lisboatik alde egin zuen. ‘Belearena egin zuen, beti bezala’. Furgonetan joan zen, Pirinioetara, eta familian gero eta gutxiago ekartzen zuten hizpidera, kasik tabu bihurtzeraino: berririk ez, berri on. Funtsean, gizona bat zeterren Adelarekin, baina ezin zuen esplizitatu. ‘Etxekalte’, idatzi zuen gizonak. Baina albisteak iritsi berriak ziren, ustekabean etorri ere, eta, itxura guztien arabera, berri txarrak ziren. ‘Gibelandi, bizizale, potrozorri’, idatzi zuen gero, ‘Seteais’.

Berriro ere telefonoa hartu zuela esan zidan; hori, eta aparailuko argazkien karpeta zabaldu zuela Fatima eta Federico seme-alaben argazkiak ikusteko; baina trenean, niri, zorionez ez zizkidan erakutsi. Handi omen zeuden, oso handi, eta batzuetan izularritu egiten zen haiek ikustean, batik bat dutxarako uanean. 9 eta 7 zenbakiak idatzi zituen haien izenen alboan, eta akaberan: 47. Eta izularritu egin zen berriro ere, eta bere izena idatzi zuen, eta alboan: 'Papao, oilobusti, zakilberde'. Mario izena idatzi zuen berriro ere, behin eta berriro, eta amaierako o letra o zenbakia bilakatu zitzaion, eta izen hau ere esanahigabetu egin zitzaion kopiatzearen poderioz. Bai, noiz edo noiz zorabio berbera sentitzen zuen seme-alabek 'Aita' esaten ziotenean, haiek bere aitatasunaz, adinaz, arduraz, betebeharrez kontziente egiten zutenean.

Noizbait ere burua paperetatik jaso, eta hoteleko gelan halako klartasun ahula sartzen hasia zela ohartu zen; hori esan zidan, eta eguna gauari gailentzen zaion guztietan bezala –eta alderantziz– istant gutxiko krisi existentzial bat nozitu zuela. Bai, beharbada orduan esan zidan irakaslea zela, edo nik ondorioztatuko nuen. 'Egon al zara Belémeko museo kartografikoan?', galdegin zidan eta, nire ezezkoarekin, erantzun zidan berarentzat toki kuttuna zela, eta badela bertan xiv. mende-ko mundu ezaguna erakusten duen mapa bat honako idazkuna daukana: «*De aqui para diante só há dragões*». Eta gaineratu zidan bera ere hala xe sentitzen zela, aldi ezagunegi baten amaieran, zer etorriko... 'Zure jokoko erantzunek ere ez didate bestelakorik iragarri', gaineratu zidan mingua



lin. Ezin ukatuko dut aitorpen horiek gizona maitagarriago egin zidatela, eta uxatu egin nituela tarteka harekiko sentitu nituen zalantzak. Orduan bakarrik izan nuen nik ere asaskatzeko gogoia, neure barrenaz, nire familiaz; baina gizonak ez zuen etenik egiten eta nik, aukeran, horrela nahia-go: «*De aqui para diante só há dragões*».

Argitasunak, egun hartan, erabaki beharra zekarriola esan zidan: 'Badakizu: aukerak zati damua gehi  $\pi$ '; hori, eta Joãorengana joan beharra sentitzen zuela, baina baita hura antzarak ferratzera bidaltzeko gogoia ere, edota bere bizimoldea birplanteatzeko gogoia, baina edozertarako ere gogogabeturik zegoela. Hotelaren kanpoaldetik, espaloi garbigailu baten harrabotsa heldu zitzaion. Trepeta burrunbatsu horiek espaloietan harrapatzen zutenean, kontzientziarekin konparatzen zituen, eta kontzientziaren harrak segitu egiten ziola iruditzen zitzaion. Baina gogoeta horiek eten, paperak berriro ere txiki-txiki egin, eta komunera jo zuen. Ispiluak itzuli zion irudia arrotza iruditu zitzaion: begi zulo haiek, makarrak, bizarraren lohia, dena berea zuen, baina ez zuen bere burua ezagutu. 'Arestian aipatu dizut *komun sentimentuarena*, ezta?'. Xaboiaren saskitxoak arakatu zuen bizarra egiteko tresnen bila, bizarra mozteagatik baino gehiago, urarekin eta aparrarekin luze freskotzeko, ideiak argitzeko. Baina hori ez beste guztia aurkitu zuen, eta besterik ezean dutxa bat hartu zuen.

Gelatik irten zen gero, eta minibarretik ez zuela ezer hartu esan zuen harrera gelan, despistez edo erresumin hutsez. Egunsentiko krisi areagotua gorabehera, goiz giroak on egin zion, egun berriak

aukera berriak zekarzkiola sentitu zuen. Bulkada horrekin Alfamarako lehenengo tranbiara igo zen –beharbada Joãorekin igarotako haur denborara itzultzeko– eta, luze gabe, neska gazte bat eseri zitzaion alboan. Haren ezker oinari erreparaturik, neurrikoa zeukala esan zidan, ez luzeegia ez laburregia; hori, eta berak emakumeetan horrelakoak zituela gustuko, baina ni han ez banengo bezala esan zuen, eta gaineratu zuen behatzetako atzalak morez margotuak zituela, eta hatzetakoetan puntu beltz ñimiño bana, eta gona lila labur batek izter guriak ikustarazi zizkiola. Azken aldian neska gazteengan sarri ikusi izan zituen orkatiletako horietako bat zeraman. Laster, baina, ez omen zuen pentsatu neskatilaren aita izan zitekeelako topikoa; aitzitik, neska bere seme-alabak bezala imajinatu zuen, erregalizak edo pipitak jaten, eta horrek itzali egin zion niri piztu berria zidan desira. Ordurako begiratua ote zion nire oinari, zer iritziko ote zion?

Gero berriro ere kontaktari lotu, eta esan zidan, tranbiatik jaitsitakoan, ezustean eta bat ere zalan-tzarik egin gabe, kafe etxe jendetsu batera sartu zela; hori eta, gogogabeturik gosalduraren, kroasanak eta kafe beroak indarberritu egin zutela, gorputz baten jabe zela oroitarazi. Komunera ere joan zen; normalean gosalduraren eta gero libratzen zen. Han zegoela, argia itzali zitzaion eta *komun sentimentuak* harrapatu zuen berriro ere. Madarikazio batzuk jaulki ostean irten zen, eta orduko hartan gutxi-asko berea sentitu zuen ispiluko irudi urrikalgarria. Beste ezer erabaki aurretik, ohi ez bezala, orduantxe deliberatu zen bizartegi batera joatera. Gero, gerokoak.

Kalean barrena zihoala, gizonilo batekin estropezu egitean bere harridurak goia jo zuela esan zidan; hori eta, narrasti baten gisara, herrestan, gizon-txoak espaloia zeharkatu, eta bizartegi batean sartu zela. Bere onera etorri ezinik, irudikeria bat ikusi izan balu bezala, gizonak ezker begiratu zuen: auto biplaza horietako bat zegoen eta gizon herrenbela seguruenik handixe irten zen. Eskuin begiratu zuen gero: bizartegi barnean, gizoniloa eserleku batean egokitua zegoen ordurako, bizarginarekin hizketan. Gora begiratu zuen akaberan: *Tras-os-Pêlos, Cabaleireiro de homens*. Eta gizona sartu egin zen oro ispilu eta axuleiu biribil zen bizartegian. Bizarginak, Quasimodo antzekoarekin hizketan jarraitu bitartean, gizonari eskuoihal handi bat egokitu, eta zirujau baten zehaztasunarekin aritu zitzaion, eta heriotza horren hurbil sentiturik, gorputza bizirik zuela nabaritu zuen, eta gorputzak eskertu egiten zituela heriotzaren ertzean egonagatik kasik laztanak zitzaizkionak. Burua goratzerik ez bazuen ere –bizia zuen jokoan–, begirada nola-hala jaso, eta New York hiriko argazki beti-bat markoztatua begiztatu zuen, baina oinohar ironiatsu batekin: *Chavesko ikusmira parziala*. ‘Ez dakit Chaves iparraldeko hiriaren aditzea duzun’, argitu zidan zeharka, eta txukun erabili zuen elipsia. *Café a Chave d’Ouro*ko egutegi bat ere ikusi zuen, eta begirakunea uztailaren 29 zenbakiari josirik, ongieza egin zitzaion. Orduan pentsatu omen zuen bera ere errealitatean herrestan zebilela. Akaberan, erlojuko bi orratzak 9an zeudela ikustearekin batera, Hendaia-rako Surepresoa 16:01ean irteten zela oroitu zuen. Listua irenstean, zintzurra lehenengo gora

eta gero behera mugitu zitzaion, labanatik hurbil. Edozer erabakirik ere, berak gorputz atalak oro zituen edozer aurrera eramateko; hori ere sentitu zuela aitortu zidan.

Ustekabean, baina, izterrean telefono deia entzun aurreko dardarizoa sumatu zuela esan zidan; hori eta, doinua entzuten hastean, bizarginari lasai segitzeko esan ziola, gero hartuko zuela, eta bizargin axolagabeak Bragako futbol taldearen gorabeheretz jarraitu omen zuen adiskide berbatsuarekin. Bizarra egindakoa, biek ala biek ere hotz agurtu zuten, baina bera freskaturik irten zen kanpoko errealitatera, bere baitako gelak une batez aireberritu izan balira bezala. Eta gizonak narrasti gisako gizon tarrapot hura izango zuen go-goan baldin eta telefonoak berriro jo izan ez balu. Pantailan, emakumearen izena agertu zitzaion ager-gordean, baina, hitz egiteko prest sentituagatik, orduan ere ez zuen erantzuteko gogorik izan. Geroago deituko zuela erabaki zuen, deliberoren bat hartutakoan, berak nahi zuenean.

Noraezean, ibilian jarraitu zuela esan zidan; hori eta, bien bitartean gogokoen omen duen igarkizunaz oroitu zela: 'Pipitaki, papataki: goizean hamaika dorre eta gaztelu dituen paisaia da, baina iluntzerako denak eraitsiak dituena'. Baina nik ez nuen erantzuterik izan, zeren orduantxe neure telefonoak jo baitzuen. Istant anbigua gertatu zen, bere laburrean gaizki ulertuz betea, zeren, nire telefonoaren doinuari argi antzeman arren, gizonaren eskua supituan mugitzen ikusi bainuen, eta iruditu baitzitzaidan, deiaren aurretik hasitako mugimendua zela, ni laztantzeko asmoarekin

agian, beharrianarekin agian, baina gizonak sake-  
lera eraman zuen eskua, bere telefonora, eta ni  
ordurako solasean ari nintzen: 'Bai, ongi bidean,  
ordu laurden barru Gasteizen naiz. Ados, gelto-  
kian'. Ospitalean izango dut astia igarkizunaren  
erantzun egokiaz pentsatzeko.

Gizona begirik kendu gabe nuen eta telefono zen-  
bakia emateko eskatu zidan; hori, eta ea axola zi-  
tzaidan noizbait deitzea. 'Istorioak atsegin baldin  
badituzu, agian nirea zertan amaitzen den ezagu-  
tu nahiko duzu'. Nik uste orduan etorri zitzaiola  
nirea ezagutzeko gogoia, baina ordurako beran-  
duegi zen, izan. Nahiago nuela ez ematea eran-  
tzun nion, gurea bere horretan izan zela kilikaga-  
rria eta, azken batean, nik berarekin harreman-  
tan jarri nahi izatera, aski nuela Coimbrako uni-  
bertsitatera deitzea eta 'Monsieur Pires, Mario Pi-  
res?' jaunaz galdera egitea. Ohe bagoiko konketan  
bigarrenkoz doi bat txukundu, eta gizonak kon-  
partimenduraino lagundu zidan maleta ttikia ja-  
sotzera. 'Ongi da', esan nion, 'hemendik aurrera  
nahiago dut bakarrik ibili. Ez zaizkit despedidak  
gustatzen', agurtu nintzaion, eta hori esatearekin  
batera, ordurako lo trinko zeuden bidaiidekiko  
axolagabe, musu eman nion. 'Erregalia izan da ni-  
retzat. *Good night, and good luck*'.



2  
Marioren fadoa



ez dakit erabakia zehazki non eta zein ordutan hartu dudana; oraindik ere ez dakit erabakia ere izan den, edo bulkada bat baino ez, betebehar familiar antzeko bat). Zer gertatuko zen atzoko deia jaso izan ez banu, pantomima domestikoak etenik izan ez balu? Zer gertatuko zen anaia popatik hartzera bidali, eta hemen geratuko banintz? Edota, zer gertatuko zen atzoko zerbitzariak deitu izan balit, gaua elkarrekin igaro izan bage-nu?

Denborak nire erabakia bera moldatu du, edo aldarazi egiten ahal zuen. Trena ordu ttikitan irten izan balitz, esate batera, 04:01ean, nire itsutasunean hartu egingo nuen eta kitteda, baina 16:01ean irteten da eta denbora tarteak zalantzak areagotu bai-no ez dizkit egin (une batez anaiarena nola-hala bideratu, eta, alkoholaren eferbeszentzian, Luziarengana joatea ere bururatu zait, Granadara..., edo hari sms bat bidaltzea: gogoratzen zaidanean harekin bizitzerik ez dudana guztia, azala pinportu egiten zait). Trena goizaldean irten izan balitz, Adelari trenetik bertatik deitzeak lagundu egingo zidan neure burua desenku-satzen eta adoretzen. Ez dakit. Haren gaitzespen edo galderen erasoari erantzun ezinik geratzean, erraz esaten ahal nion trena tunel bat zeharkatzen ari zela, ez zegoela estaldurarik (noiz-bait estaldurari buruzko igarkizuna asmatu behar dut, baina nagusientzat, hau ere haurrentzat zail samarra da) eta behar-tua nengoela etetera. Baina trena 16:01ean irteten da (ordu estrainioa inondik inora), eta Joãorengana joateko erabakia har-tu dudanez, Rossioko bazter jendetsu bat hautatu dut Adelari nire erabakiaren berri emateko, zurrumbilo horren babesare-kin markatu ditut harengandik bereizten nauten bederatzi zifrak. Begi klinikoa du Adelak, eta niri buruzko zenbat eta datu gutxiago eman, hobe.

Telefonoa eskuetan, zain egon naiz, baina noizbait ere keme-na bildu, eta deitu egin diot. 'Zer moduz zaude?', galdegin dit,



eta ni zur eta lur geratu naiz (atzo, ordutsu honetan, Federico-ren aitaren heriotzari buruzko smsa jaso nuenean bezalaxe; gero, berandu, beranduegi jakingo nuen institutuko ikaskide baten aitaz ari zirela). Errietaka, mehatxuka hasiko zitzaidalakoan nengoen. Ea non egin dudan lo, hori galdegin dit segidan eta gaua bulegoan igaro dudala esan diot. Bere buruaz ezer esan aurretik, hurrek nitaz galdezka dabiltzala erantsi du, ez dakit, ni hunkitzeagatik edo. Itzulinguruka ibiltzeko gogorik ez nenez, banoala esan diot, joan beharra daukadala, bai, Joãorengana edo Joãorengatik, ez dakit oso ongi zer esan diodan, baina nire erabakia ozenki entzuteak neure burua konbentzitzen lagundu dit. Eta trenez joango naizela, Surexpresoan, autoko aginte paneleko pantailak etengabe gogorazten baitu «Hurrengo azterketa 35 egun lehenago egin beharra». Barkamena eskatu, ez eskatu egon naiz, baina azkenean ez dut egin. Ez dut errudun sentitu nahi, ez dut zertan errudun sentitu. Egoera da, hala-beharra, edo nik konbentzimendu horretan babestu nahi izan dut. Bai, deituko dudala, noski, eta orduan izan da. ‘Sentitzen dut’, esan dit, eta nik ez dut jakiterik izan zehazki zer sentitzen zuen, Joãorena, nirea, gurea... ‘Moldatuko al zara?’, galdegin diot listua irentsi eta gero, eta berak baietz erantzun dit, ez kezkatzeko, badirela nola-hala konpontzen ahal diren arazoak eta konponbiderik ez dutenak, letalak direnak alegia... Isilune baten ostean, esan dit: ‘Eta zu, ez al zara gutxienez maleta egitera etorriko?’. Ezetz erantzun diot, bulegoko ezinbesteko lanak amaitu behar ditudala, Manuel lankidearekin batzartu, eta bizpahiru egunetarako ezer gutxi behar dudala, ni ere moldatuko naizela (Manueli lehenago deitu diot, uztailean geratzen diren lan apurrak beraren esku uzten ditudala esateko).

Adelari deitzeko, trenean lortzerik izan ez dudan zarata, babesa esan nahi dut, kalean topatu dut. Baina, zarata gorabehera, jasanekin egin zaizkit bion arteko isiluneak, batez ere agurra zaildu duten azken hitzen artekoak. Haurrak jartzeko eska-

tzea bururatu zait, baina haiek Isabelarekin egongo ziren, noski, eta Adela ospitalean. 12:21ean eskegi dut ('Kapikua', esango zidan Federicok alboan egonez gero, eta nik 'Betirako txertatua', esango nion josteta gogaikarriari uzteko; hark, azkenik, 'Antitxertoaren zitzada', amaituko zuen, eta berriro ere hasiko zitzaidan kapikuaka: begi matematikoa du semeak...).

Pays Basque, Bayonne, Mauleon, Sainte-Engrâce, Iruri, Maria.

Ez dakit zergatik, baina *Casa do Alentejon* bazkalduko nuela-koan nengoen, Baixan, baina, gero, seguruenik Adelaren oroitzapenek han eraso egingo zidatelakoan (zenbat ospakizun intimo, eta antzinako...), aurrera egin dut, jendetza eta turista saldoen urrun, eta *British Baretik* Chiadorantza igotzean, ahanztzia nuen *La Brasserie de L'Entrecôte* jatetxea ikusi, eta doi bat lasaitu nau bertan bazkaltzea erabaki izanak (aukeran, Tajo ibaiaren bestaldeko jatetxe xumeren batera joango nintzen itsas zapo *caldeirada* bat dastatzera, baina astirik ez, eta, bestalde, futxo!, banuen hona etortzeko gogo). Hala ere, lehena-go turista sentiarazi nauten zenbait erosketa egin behar izan ditut: merkealdian zegoen Fred Perry markako bidaia poltso bat, nezeserra, alkandora beltz bat, galtzontzilo beltz pare, denbora pasarako aldizkari bat eta koaderno haxe. Eskerrak, bestalde, telefonorako kargagailua erosterik izan dudak. BlackBerrya azkenetan nuen. Baina Rúa Garrett aldean erosketak egiten ari nintzela, to!, Ruben ikusi dut, Joãoren lagun mina. Kasualitatea. Bihotza golkora igo zait. Ez nuen nahi ni ikustea. Horrela ikustea. Anaiari buruzko argibiderik eman behar izatea. Gainera, langabezian dagoenetik are astunago dabil eta gauza da anaiaren antzera laguntza eske hasteko, edota, jendetasunik gabe, gizendu egin naizela esateko... Pues, pues, pues! Telefonoa belarrira jaso, eta deitzen ari nintzelako itxurak egi-ten hastea bururatu zaidan arren, espaloiz aldaturik, bizkarrez geratu naiz eskaparate baten aurrean, kristaletan begira. Eta

Ruben, beti bezain kalakari, mapa bat ikusmiratzen ari ziren bi neskari hurbildu zaie. Antzarak ferratzera bidaliko zutela koan, harriduraz ikusi dut, imintzioka, haiekin batera espaloian aurrera egiten. Ni, oster, jatetxe honetan babestu naiz, turista baten gisara kasik.

Jatetxeko zerbitzari adeitsu batek adierazi didanez, hamabost urte dira, eguerdi eta gau, menu bera eta berbera eskaintzen dutela: entsalada bat aukerako hiru saltsarekin, eta izokina edo entrekota patata frijituekin. 13:08ak dira eta oraindik bazkaltiar gutxi inguratu da. Ez erretzaileen eremu hau zoragarria da, oso klasikoa, eta kanpoko argitasun demasaren aldean esker-tu egiten da barneko giro ilunxko eta freskoa. Hala ere, aukeraren ispilu gehiegi du eta, doi bat altxatuz gero, norberaren burua hainbat ikuspuntutatik ikusteko arriskua dago. Horregatik (neure buruarekin topo ez egitearren, alegia), koadernoia idazten hasi aurretik, telefonoko argazki bakanak berrikusten hasi naiz, baina utzi egin behar izan diot. Fatima, Federico. Hondartzan. Izozkia jaten. Futxo! Ze gogoko dituzten nire igarki-zunak. Baina oraindik ez diet azaldu hondartzarena, harresi eta gazteluena. Horri nekez igarriko diote. Ez dakit ez ote naizen errudun sentitzen. Ez dut inoren itsaso izan nahi. Eta, hala ere, ez naiz damu. Olatuek irentsi duten gaztelu eraitsia naiz.

PLANALTO  
Douro  
Vinho Branco Seco  
2008

*Este vinho, como o seu nome sugere, é proveniente de uma planáltica da região do Douro. Abrigada dos ventos atlânticos pela Serra do Marão, o Planalto é produzido em pequenas quantidades, a partir da más rigorosa seleção de castas nobres da região. É um branco seco de alta qualidade, leve, delicado e muito elegante.*

Ardoa gero eta atseginagoa zait, udan zuria batez ere. Burua lanbrotzea eta zerbait ahanztea nahi dudanean, zuria batez ere. Hala bada, urte osoan gero eta gehiago (hala ere, bezeroekin nahiz bakarrik, gero eta gutxiago joaten naiz lehengo taberna eta jatetxe *chicetara*, eta joatekotan, kopa bat hartzera eta lehengo denborak gogoratzera baino ez naiz sartzen, erreprografia negoziotan hastean izaten nuen euforia hura...; eta, halabeharrez, gero eta gehiago joaten naiz taberna zuloetara, arropari frijituen kiratsa itsasarazten dioten horietara, alegia). Botiletako etiketak ere gero eta gustagarriago zaizkit, edo gero eta hobeak egiten dituzte. Poesia hutsa dira. Enologo izan nahi nuke. Edota etiketa hauek idazten espezializatu den aditua. Baina, hasi, ardandegietara joan, eta etiketa horiek inprimatzeko eskaintza onak egiten hasi beharko nuke.

‘Kontuz, platera oso bero dago’, ohartarazi dit zerbitzari neurritsuak okela ekartzean. *Leve, delicado e muito elegante* da, ardoa bezalaxe (zure kopari begirik kendu gabe dabilzan eta, eskatu gabe, zure ardoa zure izotzontzitik zerbitzatzen duten zerbitzariak, jakin gabe zuk gehiago hozten utzi nahi duzun edo, besterik gabe, zuri zerbitzatzea gustatzen zaizun ala ez, jasanezinak zaizkit, adeitsuegiak –koipetsuegiak– direnak bezainbeste). Oso bitxia da okela eta patatei bero eusteko tramankulotxoa, eta sinplea aldi berean: bi kandelatxo pizturik azpila pean. Ez da besterik, eta hala ere benetan bero dago guztia: behar den bezala. Eta, bien bitartean, ardoa oso hotz dago: ezinbestekoa den bezala. Eta zerbitzari neurritsuak botilari begiratzen badio ere, oharkabean egiten du. Neurririk ez du nire barrenak orain.

Etorriko al naiz noizbait hona Adelaarekin? Edozer gertaturik ere, ongi legoke (etorriko al naiz noizbait hona Luziarekin, nola egongo ote da?, zergatik aipatu dut bigarrenkoz koarderno hasi berri honetan?). Jendetasunez amaitu nahi nuke.

Txispatzen hasia naiz, eta betetzen, eta beroa zabaltzen dut. Doi bat baztertu dut tramankuloa. Eta badator, diskrezioz etorri ere. Zikoina baten kolore eta dotoreziarekin. Nahasten ari naiz.

Ez dakit norekin, baina ziur nago itzuliko naizela. Zerbitzariak postre aukera aparta ekarri dit bi apaleko gurditxo batean. Edozein karta baino praktikoago eta dotoreago iruditu zait, gozotegi bateko eskaparate baten antzekoa. Erabakirik hartu beharrik ez izatera ohitua, ezin erabakirik egon naiz, baina gazte galaiak *'Mousse de chocolate com compota de Ananás e Pimenta Verde'* aholkatu didanez, horixe aukeratu dut. Eta ez naiz damu. Ardo zuriaren hondarrak ere ongi laguntzen dio. Koaderno hau erosi izanaz ere ez naiz damu. Letrek ordezkatu dituzte, aspaldiko partez, zenbakiak. Azken batean, zenbakiak ere erabakiak dira (Cariocamatikakoak zain egongo dira, tonerrik gabeko bost fotokopiagailutzar pack berean, eta kreditoak, eta uztailaren akaberarekin epearen urkabilurra lepoan...). Aukerak zati damua gehi  $\pi$ . Palindromoak datozkit kapikuak ordezkatzera. Pitoke-riak. Iruri...

## NORTASUNAREN TEST TIBETARRA

Izan zaitetz zintzoa eta ez jo erantzunetara amaitu aurretik. Galdeketa honek zer pentsa emango dizu bai zure lehentasunei buruz bai zure bizitzari buruz. Hobe duzu aurrena dator-kizun burutazioa erantzun hausnartuegia baino.

1. Sailka itzazu animalioek zeure gustuaren arabera.

- Behia 4
- Tigrea 2
- Ardia 3
- Zaldia 1
- Zerria 5

2. Egokitu iezaiozu hitz bakoitzari zure ustez hobekien deskribatzen duen hitza.

- Zakurra *bakardadea*
- Katua *finezia*
- Arratoia *tonerra*
- Kafea *dosia*
- Itsasoa *misterioa*

3. Egokitu ondoko kolore bakoitzari zuretzat garrantzitsuak diren pertsona ezagunak, betiere pertsona bat koloreko.

- Horia *aita*
- Laranja *Fatima*
- Gorria *João*
- Zuria *Federico*
- Berdea *Luzia*

4. Idatz itzazu zure zenbaki eta astegunik gogokoenak, eta pentsa ezazu desio bat.

*69; osteguna*

Dagoeneko trenean noa, bai, baina txirripaz... Futxo! Geltokirantza lasai ederrean nindoala, bihotza Golkora igo zait poltso berria jatetxean ahantzi dudala ohartu naizenean. Sake-lako telefonoak 15:15 markatzen zuen. Nire asalduran, kapikua iruditu zaidalako gogoratzen dut, eta berandutzen hasia zitzaidalako. Jatetxera oinez itzuliz gero, trena galtzeko arriskua izango nuen, baina ezinbestekoak nituen gauzak hor zeuden. Neure burua madarikatu dut, madarikatu dudanez (gero eta gutxiago jasaten ditut saihesten ahal diren hanka sartze txepel hauek: munduko denbora guztiaren jabe izan, eta berandu ibiltzea ere...). Aieru bat izan ote zitekeen pentsatzeko astirik ere gabe, pausu luzeka itzuli naiz jatetxerantza.

Harantzean zuhurrago jokatu dut eta bidean nindoala deitu diot taxiari, itzulerarako jatetxean gertu izan nezan. Hala bada, zerbitzari adeitsuak ikusi bezain laster luzatu didan poltsoa jasorik, 'Azkar, Santa Apolonia tren geltokira!' esan diot gidariari; baina trafiko handia izan, eta, Salazarren tonerra!, geltokitik hurbil geunden arren, taxian bertan entzun ditut irratiko laurak... Lehengo ardo freskoa izerdi tanta berotan isuri zait eta, artega, kopeta behin baino gehiagotan xukatu behar izan dut esku gainaz. Neure burua madarikatzen jarraitu dut, madarikatzen jarraitu dudanez. Berandu nenbilen eta billetterik ere ez nuen. Berrero ere patuak neure ordeaz erabakia hartua zuela pentsatzeko astirik ere gabe, taxizaleari eskuzabaltasunez ordaindurik, esan diot: 'Kobratu, mesedez, baina egingo al didazu itzaroteko mesedea? Ohi bezala, trena berandu irtetea espero dut, baina hala izan ezean, Orienteko geltokira eraman behar nauzu, ziztuan...'. Autotik lasterka irten arren, ordurako (16:07) nasa huts baino hutsago topatu dut eta taxira ufaka itzuli naizenean gidariak ongi etorri eskasa egin dit: 'Pentsatzen aritu naiz eta, Orienteko geltokira ere, trafiko honekin, trena baino geroago helduko gara. Zeuk ikusi'.

Bitxia da, baina ez dut zalantzarik egin. Bidaia bertan behera utzi, eta egunerokotasunari eusten ahal nion, baina ez. 'Hendaiara noa, baina Surexpresoa hartzeko ez dugu Coimbraraino joan beharrik izango, ezta?', atera zait gehiegi pentsatu gabe (trenbidea ongitxo ezagutzen dut eta taxizalea frogatzeko aukera zitzaidan). Gidariaren esku nuen neure burua. Dirutza ordaindu beharko nion edonola ere. Baina taxizaleak zentraltxora dei bat egin, eta nik neuk entzun ahal izan dut Orientekoaren ondoko geltokiaren izena: Entroncamento. 'Han aise hartu ahal izango duzu', amaitu du diruaren hotsak halabeharrez sentiarazten zion poztasuna erakutsi gabe.

Harainoko ordubetetsuko bidea isilean egin arren, ufaka eta madarikazioka joan naiz ni. Anabasa hutsa sentitu dut neure sabel bete berrian, damua nire digestio gorabeheratsuagatik. Eta ez naiz saiatu ere egin nire korrokadak disimulatzen, kope-ta esku gainaz xukatzen. Loezak jotako zenbait gautan bezalaxe sentitu naiz taxiaren espazio urrian (aldi berean iglu eta sauna). Aspaldiko partez, nire bizitzaren protagonista halako bat sentitzen hasia, horra hor berriro ere ni barregarri, horra ni berriro ere peripatetiko, *komun sentimenduak* hartua. Eta tarteka-marteka izerdi txirraia bizkarrean behera. Baina Entroncamentoko geltokira, heldu, heldu gara eta, gidariari dirutza ordaindurik, ez nau ikaratu leihatila aurreko ilarak, Murphyk ez nau ustekabean harrapatu. Bidaiariei Hendaiara nindoala desenkusaka hasi natzaie, eta ea txanda pasa egiten utziko zidaten. Eta ez dut zalantzarik ere izan saltzaileak ohe bagoia edo, besterik gabe, eserlekua nahi ote nuen galdegin didanean ('Lehen mailan ez da tokirik geratzen'): ohe bagoia. Atsedena, erosotasuna eta intimitatea behar nituen. Atsedena, erosotasuna eta intimitatea behar ditut.

Surexpresoa etorri bitartean, aldizkariko test tibetar delakoa betetzen –neure burua lasaitzen, ezertan ez pentsatzen– eman



dut denbora. Alabaina, trena agertzean, berriro ere zalantzak erasan nau. Neure burua berriro ere leihatilan imajinatu dut, Santa Apoloniarako billetea hartzen, eta saltzailearen harri-dura imintzioa. Baina dagoeneko Hendaiarako trenean nago, neure ohe bagoian. Eta banoa. Eta, kanpoan dena da argitasuna. Osteguna izan arren, sumatu egiten da asteburu bezpera itxaropentsua, eta nire barne giroa, ostera, tonerra bezain ilun dago. Bitxia da. Adierazgarria.

*«De aqui para diante só há dragões».*

1. Hona animalia bakoitzaren esanahia.

- Behia (4) *lasterketa*
- Tigrea (2) *harrokeria*
- Ardia (3) *maitasuna*
- Zaldia (1) *familia*
- Zerria (5) *dirua*

2. Hona deskribapenen esanahia.

- Zakurraren deskribapenak (*bakardadea*) zure nortasuna adierazten du.
- Katuaren deskribapenak (*finezia*) zure bikotea adierazten du.
- Arratoiaren deskribapenak (*tonerra*) zure etsaiak adierazten ditu.
- Kafeak sexua (*dosia*) nola hartzen duzun adierazten du.
- Itsasoak zeure bizitza (*misterioa*) adierazten du.

3. Hona koloreen interpretazioa.

- Horia (*aita*): sekula ahantziko ez duzun norbait.
- Laranja (*Fatima*): benetako adiskidetzat duzun norbait.
- Gorria (*João*): benetan maite duzun norbait.
- Zuria (*Federico*): zure arima bikia.
- Berdea (*Luzia*): zure bizitzan beti gogoan izango duzun norbait.

4. Zure desioa ostegun batez beteko da.

Zur eta lur nago. Ez dakit familia goregi eta dirua beheregi ez ote zaizkidan atera... Bakardadearena ulergarria zait, baina barregarria. Bestalde, bai bitxia alaba benetako adiskide ateratzea eta Luzia molde horretan agertzea, eta Joãorena... Ez dakit test honetako irizpide kulturelek ez ote duten soilik Ekialderako balio. Adela, azkenik, orain konturatu naiz ez dudala aipatu ere egin, salbu eta, zeharka, katuaren deskribapenean (finezia). Bai, inondik inora zer pentsa ematen duen testa da, baina nik pentsatzeko gogorik ez.

Aldizkariak dakarrenez, testari buruzko power point bat omen dabil sarean, eta testak hor hartzen du benetako indarra. Horrekin batera, galdeketa email bitartez jasoz gero, 69 ordu baino lehen bidali beharra dago, hain zuzen ere norberak aipatutako jende kopuru horrexeri. Topikoekin jokatzegatik gertatu zait (nik neuk leporatu nion Adelari ijitoak eskainitako erromeroa onartu izana...). Horrela beteko da norberaren desioa, norberak aipatutako egunean, ostegunean alegia...

Gero eta jasanezinagoak zaizkit halako power point eta antzeko email mengelak. Salazarren tonerra! Ez dakit zer egiten dudan halako txorakeriak egiten. Ardoaren eragina bide da... Ez dakit zehazki zer desiratu. Otoi, jeinurik ez dakidala orain agertu hiru desiren kontu horrekin! Agian noizbait Luziarekin berriro ere elkartzea...

GOIZALDEKO 4:30AK PASATXO DIRA (BlackBerryaren erlojua ordu-bete aurreratu behar izan dut) eta ezin dut lorik egin. Ahal izanez gero ere, ezin askorik egin, izan ere trena Hendaiara goizeko 7:10ean iristekoa baita. Idazten jarraitzeko, lehen idatzitako lerroak irakurri, eta konturatu naiz azken orduotako nahasmenduak bere horretan jarraitu arren, orain, gutxienez, autoestima hobekixe dudala. Amaliak 'erregalia' hitza erabili du, eta atsegin izan zaio portugesez (antza, gaztelania zaharrean ere bai) hori adierazteko darabilgun gure 'presente' hitza, aditz denborarekin oso lotua. Aintzat hartu nau Amaliak.

Gasteiz du izena. Vitoria gaztelaniaz. Hiriaren argitasun laranja gero eta urrunago ikusten dut. Amalia dagoeneko hango kaleetan barrena joango da, geltokira bila joan zaionarekin, eta ezin izango du Surexpresoa desagertzen ikusi (seguruenik kontatu ere ezin izango du ezer egin). Biok badakigu betiko desagertu garela elkarrentzat. Gertatu den ere... Amaliak *British Bareko* erlojuaren sentipena berrituarazi dit: agurtu nauenetik, oparia eskuetatik aienatu zaidanetik, aurrera doan tren batean atzeraka noala sentitzen dut.

Hamabi ordu inguru dira Entroncamenton trena hartu dudala. Ez dut ohe bagoian askorik iraun, hala ere. Miniaturazko konketan doi bat freskotu, eta alkandora aldatu ostean, klaustrofobia sentitu dut, eta damua –gero ez bezala– ohearen ordez konpartimendu bateko eserleku bat hautatu ez izanaz. Coimbratik aurrera ez da jendetzarik ibili eta, batez ere, entrenigarriagoak dira. Nire itolarritik urruntzearen, korridorera irten behar izan dut eta, kafe bagoiaren bila nindoala, orduan gertatu da. Bera leihoaren alboan eserita ikusi dut eta, liluraturik utzi naute udako soineko beltzak agerian uzten zizkion sorbalda beltzaranduek. Hainbestearino non, ez bat ez bi, beraren konpartimenduan sartu bainaiz (geroago konparturatu naiz hobe nuela itxurak egitea eta hurrengo geltokira arte itxarotea, baina damua garaiz; hala ere, damua, benetako, berari buruz ezer ez jakiteak eragiten dit orain, oso jendetasun gutxirekin jokatu dut berarekin, eta beste galdera batek ere erasaten dit: zer gertatuko zen berarekin batera Gasteizen jaitsi izan banintz...? Uste dut damuari buruzko beste igarkizun bat pentsatu behar dudala). Sartzerakoan, nire agurra oso apala izan da, ahopekoa, eta berarena xuxurla antzeko bat, baina hankak pareko eserlekutik baztertu, eta burua niregana zuzendu duenean, beraren begi nini beltzek urduritu egin naute. ‘Niregatik ez jaitsi’, esan diot hankak seinatuz eta emakumearen neurri-neurriko oinei erreparatuz, baina berak irribarretsu baztertu ditu eta ni buruz buru eseri natzaio. Eta testa orduan egin behar nuela bururatu zait, orduantxe jakin baitut zer desio nuen...

Ilunabarra ez da ederra izan. Ilunabarrak ezin dira ederrak izan. Eguzkiak emakumeari ñabardura asko eman dizkio, ilean, aurpegian, sorbaldetan...; baina nik gaua lehenbailehen etortzea nahi nuen, bai bainekien iluntasunak kristala ispilu bihurtuko zuela eta nik bera hobeki eta lotsagabeago ikusi ahal izango nuela. Paisaian interesatua banengo bezala. Besterik ere

desiratu dut, hau da, beraren konpartimendura beste inor ez sartzea. Biok biotara joatea. Eta ez zen sexu irriks hutsa. Edo bai. Imaginatu dut betile luze horietako bat begian sartzen zitzaiola eta nik zapi mutur batez ateratzen niola. Baina imaginatu dut, aldi berean, bere betileak –ere– erabiltzen zituela nire zakilburua laztantzeko (Fatimak emanarazten dizkidan tximeleta musuak bezala, baina bestela), eta tarteka begirada niregana altxatzen zuela. Eta kontua da orain ez dudala zertan imaginatu gertatu egin delako. Gertatu berria delako nolabait ere (beraren sexuaren usaina eskuetan itsatsia daukat oraindik eta ez dut ezabatu nahi). Alabaina, zenbat denbora behar du gertakari batek oroitzapen bilakatzeko?

Hitz hauek oraindik ere oroitzapen ez diren eszenak berriro dastatzen laguntzen didate. Ze pena, baina, hitz egokiak hautatzeko dohaina ez edukitzea, poeta ez izatea (ziur nago botiletako etiketak idazteak lagunduko lidakeela halakoetan, etorria erraztuko lidakeela alegia). Kontua da Guardan bikote bat eta agure bat sartu direla (eskerrak ez dioten eserlekuen zenbakiari erreparatu eta ez nauten tokia aldatzera behartu), eta nik, are lotsagabetuago, emakumeari zuzendu natzaiola eta, halako batean, galdegin egin diodala ea zein liburu irakurtzen ari zen. Begiak begietan eta isilean egon gara puska batean. Liburuaren azala erakutsi dit gero eta nik *Fadoa Coimbran* irakurri ahal izan dut (bide batez, hatz nagian bi eraztun ikusteak alarguna izan zitekeela pentsarazi dit). ‘Gaztelaniaz’, esan diot, argi baitzegoen ez zegoela portugesez idatzia. ‘Euskaraz’, esan dit berak. Gutxien uste nuena. Eta oraindik ere beraren ahotsa ezagutzearen plazera guztiz dastatu gabe, Joãori buruzko deia etorri zait gogora, *Pays Basquekoa* hura ere. ‘Utziko al didazu gainbegiratzen?’.

*Fadoa Coimbran*

Eta horrela hasi da guztia.

Bi hitzak –bi eraztunak bezalaxe– ezagutzen nituen arren, ezin esanahiari zuzen igarri. Deklinabide kontuak aipatuz, esanahia argitu dit eta ni fadoari buruzko igarkizun bat asmatzekotan egon naiz, baina une horretan ikuskatzailea agertu da, nahi izanez gero jatetxean afariak ematen hasiak zirela adierazteko (doi bat larritu naiz, izan ere lehenago billetea ohe bagoian zulatua baitzidan, baina ez du ezer nabarmendu).

‘Amelia’ izena zuela esan dit nirearen berri eman diodanean eta elkarren ezagutzak egin ditugunean. Istant batez begiak begietan jarraitu dugu, isilean. ‘Kafe bat har genezake, edo elkarrekin afaldu, Amalia’, esan diot luze iritzirik, ‘zeren zure izena, portugesez, Amalia baita, fadista handiaren antzera’. Eta onartu egin du aldaketa, eta onartu egin du proposamena. Eta nik ere baiezkoa egin diot, edateko, kartatik botila bat *vinho verde* aukeratu duenean (ez jakin zergatik, baina ez nuen uste trenean halakorik edukiko zutenik). ‘Bakarrik ibiltzearen desabantailetakoa bat duzu: otorduetan ez dago pertsona bakarrarentzako neurri egokirik, toki gutxitan edukitzen dituzte botila ttikiak’. Arrazoi du: ardoa guztiz bestelakoa da koparen bestaldean norbait duzunean; eta topa egin dugu, barre egin dugu, izan ere ironiatxoak barre bihurtzeko ere bi lagun behar baitira; eta sekretuka hasi gara, izan ere, batzuetan, ezezagunetan ezezagunena bihurtzen baita adiskiderik mamiena, halabeharrezko konfidentea. ‘Beharbada nahitara ez dituzte botila ttikiak egingo, beti ere edankidea bilatzen ahalegindu gaitezen’, esan diot. Eta, ez bat ez bi, bera zeharka eta modu dibertigarriagoan ezagutzeko test tibetarra egi-tea proposatu diot, gutxi-asko oroitzen nuen gisara, eta berak erantzunak ezpazapi honetan jaso ditu.

1.

- Behia 2
- Tigrea 1
- Ardia 5
- Zaldia 4
- Zerria 3

2.

- Zakurra *bilaketa*
- Katua *misterioa*
- Arratoia *urrun*
- Kafea *ni, adibidez ('Kafezale itxura guztia duzu...')*
- Itsasoa *Atlantikoa ('Ozeano Barea inondik ere ez')*

3.

- Horia *Mikel*
- Laranja *Nora, alaba zaharra*
- Gorria *Ainhoa, alaba ttikia*
- Zuria *ama*
- Berdea *Olarizu, ahizpa ttikia*

Gero izango dut beraren erantzunak nireekin alderatzeko astia, baina, erantzunak gogoan, esanguratsua iruditu zait ardia, hau da, amodioa azkena aukeratzea; kasualitatea iruditu zait bion alaba benetako adiskide irtetea, edota berak katuari egokitzea nik itsasoari erantsitako misterioa, eta, futxo!, nola adierazi kafearena... Mikel hori senarra ote duen galdegin diodanean, ezetz erantzun dit, adiskide aktore bat dela eta hain zuzen ere horregatik gorroto duela kolore horia (nik adierazi diot esku-hortz horixkengatik aukeratu dudala aita erretzailea, eta nire ezkontza egunean alkandora hori batekin agertu zelako...). 'Baina beltza, non dago beltza!?', galdegin du gero, eta orduan esan dit tentelkeria dela testaren kontu hori, eta orduan nik esan diot baietz, bai-



na bera ezagutzeko aukera eman didala. 'Arrazoi duzu, ten-  
telkeriak ere ongi daude noizean behin'.

Begiak begietan geratu zait berriro ere, katu baten antzera, eta nik ezin izan diet beraren pentsamenduei igarri. Ez bat ez bi, ni ere jostatzeko prest ote nagoen galdegin dit. Jakina, bera nire testari erantzuteko prest agertu denez, nik ere baiezkoa eman behar izan diot jostetari. 'Egizkidazu axola zaizkizun bi galdera', esan dit, eta ni ez naiz gehiegi luzatu: 'Nola-koa izango da nire etorkizun hurbila? Zer gertatzen zaio Joãori?'. Azkarregi erantzuteak hori dakar: nabarmen geratu da egoera honetan ere neure buruaz egin diodala lehen galdera, baina Amaliak ez dit halakorik leporatu. Aitzitik, poltsotik *Fadoa Coimbran* nobela atera, eta liburua zabaltzeko eskatu dit. 'Edozein liburu *I Ching* balitz bezala erabil daiteke', zuzendu zait, eta nik badaezpada ere ez diot esan ez nuela halako zeraren berririk. 'Zabaldu liburua edozein orrialdetan eta irakur ezazu 1. paragrafoko 5. lerroa, orrialdeak gutxienez hiru paragrafo baldin badauzka, eta elkarrizketak baztertuta betiere. Horixe izango duzu erantzuna'. Eta nik 69. orrialdeari dago-kion esaldi hau irakurri dut: «Mediokritatearen etimologiaz galdegin zion». Gero, bi ahaleginetan huts egin ostean: «Lainoa sartu zen orduan». To bigarren erantzuna. Begiak begietan jarraitu dugu puska batean eta nik uste orduan esan diodala kristalaren igarkizuna, orduan hasi naizela, kasik konturatu gabe, nire azken ordutako gorabehera lainotsuak kontatzen.

Amaliak bost zenbakia hautatu du testa amaitzeko, eta osti-  
rala, baina zein izango ote haren desioa?

EURIA DA. ZAKAR ARI DU. Leioa zabalduko nuke doi bat freskotzearren, baina, korridorekoa ez bezala, ohe bagoikoa blokeatua dago eta orain ezin naiz inora joan. Amaliari noiz edo noiz egiten dudan ametsa ere kontatu diot: ilunpetan, herrestan noa giza gorputza baino handixeagoa den hodi edo tunel ilun batean barrena, nekez hartzen dut arnasa eta nire larridura, amaieraren aztarrenik ez izatean, unean baino unean jasanezinagoa da; noizbait ere, hodian aurrera izerdiz beltzitua noala, halako argitasuna sumatzen dut urrunean, egun-sentiarena izan daitekeena, eta horrek are gehiago gaizkitzen nau, baina aire zabala sumaturik, zazpi ahaleginak egiten ditut argitasunera iristeko, eta halako batean heldu naiz, baina hodia-  
ren amaieran zer eta iglu bat dago, iglu hertsia eta irteerarik gabeko bat, eta aldian aldiko ametsean aldatu egiten zaizkit han zain ditudan pertsonak, noiz gurasoak, noiz Adela, noiz João bera... Amaliaren oroitzapenak (nik uste dagoeneko hartakotzat jo dezakedala), hala ere, eramangarriago egiten dit klaustrofobia antzeko hau. Beraren lurrinak, beraren sexuaren sentipen likatsuak, beraren hitzen oihartzunak. 'Erregalia izan da niretzat. *Good night, and good luck*'.

Zakar ari du, kristalak euri tanten kolpeak jasotzen ditu, baina, apalegiak izaki, apenas entzuten diren. Azkenean, trena-

ren beraren zaratara ere ohitu (lasaigarria gertatzen da azkean), eta ez da ezer entzuten. Non eta merkantziaren batek, ziztuan, gurearen kontrako norabidean igarotzen ez den. Edota tuneletan goazela, barrunbe hertsia zarata milaka bider handitzen ez duen. Ilun dago paisaia. Doi-doia errepideren bateko argiak, herrixkaren batekoak. Ilun nago ni.

Apenas afaldu dugun. Sandwich banarekin amaitu dugu botila, eta bina belar likore hartu ditugu (orain ez dut gogoratzen Amaliak erabili duen izena, baina *bagacera* moduko bat zen). Zerbitzariari hirugarrena eskatu diodanean, ezezkoarekin erantzun dit adeitasunez: kafetegia ixtear zegoen. Nik mihi puntan neukan senarrari buruzko galdera eta, zeharka, atzamarrean zeramatzan bi eraztunei buruzkoa, baina galdera egin gabe geratu zait eta kontuarekikoak egin ditut.

Bagoitik irtetean, begi niniak begi ninietan, ohe bagoian nagoela aitortu diot, eta hala nahi izatera prest nengoela nire *suita* erakusteko. 'Neure gelan har dezakegu...', esan diot esaldia amaitu gabe eta nire harridurak goia jo du, ez bat ez bi, 'Baina ez zara logale?', begi limurtzailez erantzun didanean. Zerbitzaria adi egon da, antza, zeren kristalezko bi ditare eskaini baitizkigu. 'Hau etxearen kontura'. Eta ni Lisboako zerbitzariarekin gogoratu naiz, eta hura bezala, une hauskor horietan *leve, delicado e muito elegante* izaten saiatu naiz (orain, ostera, telefono zenbakia utzi nion neska zerbitzaria datorkit gogora).

Harrigarria zait: korridore estua gorabehera, bi ditareak eskue-tan eraman arren, Amaliak besotik heldu dit. Beraren konpartimendura itzuli gara, maleta jasotzera, baina agurea lo ikusi dugu ezkerreko eserlekuan luze, eta eskuinekoan biko-tea, haiek txirikordatuak, eta maleta bertan uztea erabaki dugu. Besotik heldurik iritsi gara.

Zahartzen ari naiz: aspaldian ez daramat kondoirik aldean. Eta, hala ere, ze plazera gorputz arrotz bat deskubritzea, esku arrotzak zurean sentitzea, mihiei mintzatzen uztea (itxi-irekian dabiltzan betileek zakilburua laztantzea fantasietarako utzi beharko), oraindik bizirik sentitzea (ipurmasailetan ukalditxoka hasi natzaionean, eskuari heldu, eta esan dit 'Film pornoak ez zaizkit gustatzen', baina ez nau gaizki sentiarazi eta sutsu jarraitu du, 'Bularrak, laztandu bularrak batik bat, milikatu astiro').

BAYONNE. BAIONA. 'Zergatik ez zara hegazkinez etorri?', galdegin dit Amaliak lehentxoago. Eta nik neure arbasoen bidea egin nahi nuela erantzun diot, arrapostua literatura doi batez janzteko edo. Ez diot aitortu hegazkina aipatze hutsak beldurak hilik jartzen nauela, eta hala ere azaldu diot ilunabarean nahiz egunsentian gaizkitu egiten naizela. Dena dela, gaurko egunsentia Hendaiaiko geltoki barnean harrapatu nau eta ni kafeko bazter batean babestu naiz. Gero, oster, Baionarako hartu dudana TGVko leihatilatik, paisaiak bere edertasunaz sariztatu nau: mendi eta muinoen espiral ezin berdegoa etxe zuriez zipriztindua, etengabe kukuka aritu zaidan itsasoa, Biarritz ezaguna... (Orain naiz benetan kontziente Amaliari buruz izan dudana jokamolde ziztrinaz: ni asaskatu naiz, eta hark arretaz entzun nau, baina beharbada alkohol gaindosiaren eraginez, irudipena dut berbalapiko hutsa izan naizela eta apenas jakin dudala ezer berari buruz. Ez, ez naiz *mucho elegante* izan. Mediokritatearen etimologiaz galdegin zion...).

Arbasoen antzinako ibilbidean eten bat egin eta, Paris edo urrunagora jo beharrean, Baionan gelditu naiz. Ezer baino lehen, ordutegia ikustera joan aurretik, mapa bat erosi dut, gutxienez neure burua doi bat kokatzen hasteko. Hemendik

hurbil ageri da Mauleon –Maule euskaraz–, baina, jakinara-  
zi didatenez, trena erdi bidera baino ez da heltzen, Pirinioen  
ateetan dagoen Saint Jean Pied de Port –Donibane Garazi–  
herri honetaraino, alegia.

Neure burua kokatu arren, berriro ere nahasmendua jabetu  
da nitaz. Batez ere, handik gutxira, dagoeneko ezezaguna ez  
zaidan telefono luze arrotza pantailan nagusitzean (deiak  
ugaldtu egin dira eguerdiaz geroztik, baina nik, errietaldia  
atzeratu nahi duen nerabearen antzera, modu isilean ipini  
dut telefonoa). Geroago deitzea erabaki dut, atzo Adelarekin  
eta laster egingo dudana bezala. Mapa bildu ezinik ibili naiz:  
dragoiak izango ote ditu barnean?

Argi d'Ansa  
IROULEGUY  
2008

*Irulegik, Euskal Herriko maldetan kokatua, eta  
mahasketa eskuz baizik egina, arno indartsuak eta  
bihoztunak ematen ditu. Idorra eta fruitu gustudun,  
arno hunek ongi laguntzen ditu arrainkiak,  
xerrikiak, eta beste errekiak. Ezin hobea da  
lagunarte apairu batendako. Hobe bi urte barne  
edatea. Freskorik dasta 8 eta 10 graduren artean.*

Nire bizitza osoan egin ez dudana birritan egin dut egun gora-  
beheratsuotan. Baionan ere bizartegi batean sartu naiz eta ezin  
ukatuko dut on egin didala: freskura, garbi usaina... Amalia-  
rekin ez bezala, orain konturatu naiz beste erregistro batean  
sartu naizela; bart, trenean, honetaz eta hartaz mintzatu gara  
eta ni kasik ez naiz ohartu ere egin bera gaztelaniaz eta ni  
portugesez aritu garela, baina bizargilearekin elkar ulertu ezi-  
nik ibili gara, ibili garenez. Telefono pantaila ere izan da hiz-  
kuntza nahaste-borraste horren lekuko, bai Portugaletik Espai-  
niara igarotzean bai, orain, Espainiatik Frantziara pasatzean;

bietan ere hainbat telefono konpainiaren sigla arrotzak nagusitu zaizkit.

Baionan kalerik kale ibili naiz, astiro, eta hiri domestiko atsegina iruditu zait, giza neurrira egindakoa eta estetikoki uniformea, postal bat kasik, gero Donibane Garazira ekarri nauen tren tikiak erakutsi didan paisaia bezalakoa: hain perfektua, berdamen ederrean landetxe zuri teilatu gorri apainekin, hain dekoratua, deseroso samar sentiarazi bainau. Donibane Garazi hau, ostera, herri bat iruditu zait, baina antzinasuna dario bere harresi eta jauretxeekin, antzinasun gaurkotua hahemenka ikusten diren Santiagorako erromesekin. Jatetxean argitu didatenez, Europako hainbat tokitako jendea hemendik abiatzen da Donejakue bidea oinez egitera, zortzi ehun kilometro baino gehiago... Futxo!

Alabaina, ni bertan goxo nago jatetxe tipiko batean, *piperrada* delako plateraren ostean ahatekia jaten, baina badakit laster hasiko naizela urduritzen Mariaren telefono luzea markatzeko orduan.

Irouleguy izeneko ardoa dute hemen, baina, etiketak alderaturik, Errioxakoa hain zen osasungarria, horixe aukeratu baitut... (izena ere gustatzen zait, beharbada afera atsegin bat oroitarazten didalako).

JUDIT  
De  
Valdelana  
2007

Osasuna ardoa bitarte

Ardoa osasungarria da  
-betiere neurrian harturik-

Ardoa da:

*Hodi zabaltzailea*  
*Lasaigarria*  
*Diuretikoak*  
*Gantz xurgatzearen laguntzailea*  
*Kolesterol onaren estimulagarria*

Hori dela eta, ondoko gaixotasunak  
galarazten edo uxatzen  
laguntzen du:

*Alzheimerra*  
*Minbizia*  
*Infartoak*  
*Patologia kardiobaskularra*  
*Begi gaixotasunak*  
*Hipertentsioa*

Gure *ginja* oroitarratzen duen *digestifa* behar izan dut (*patxarana* ere esaten diote) nire lozorro anesthesiagarri honi eusteko eta telefonoan Maria Iruriren telefono zenbakia markatzeko. Eta haren 'Allô?' entzutearekin batera duela kasik bi egun entzundako hitzak berritu zaizkit: 'Monsieur Pires, Mario Pires?', eta, uxatzen ninduen errealitatearen aurrez aurre, arrotz sentitu naiz, eta noragabetua, eta zalantza sortu zait hona etortzeko hartutako erabakiaz, batez ere emakume ezezagunaren hizkera gaitzesgarria entzutean (seguruenik lehenago telefonoa hartu ez izana leporatzen ari zitzaidan, edo anaiatz behar bezala ez arduratzea eta berandu iritsi izana). Joãori buruz galdegin nahi izan diot, zer moduz ote dagoen, baina frantsesez, telefonoz, ezin luzatu, eta doi-doi ulertu ahal izan diot Citröen AX zuri batean etorriko dela nire bila.

Trinketean, 17:30ean.



HILABETE INGURU BEHAR IZATEN OMEN DA Santiagora iristeko. Ez da ezinbestekoa sinestuna izatea eta, hala ere, finean bidaia izpirituala omen da. Seguruenik alkoholaren behin behineko baikortasuna izango da, baina oraintxe bertan abiatuko nintzateke dendetan ikusi dudana «Erromesaren set» horietakoren bat erosirik: botak, galtzerdiak, makila kuiaduna, motxila eta kapelua (ez, ezin dut neure burua itxura horrekin irudikatu, baina kontua abiatzea litzateke). Irudipena dut, ez, ziur nago gero eta gehiago atzeratu nahi dudala anaiarekin elkartzeko unea. Azken batean, arrotza zait eta ez dut ikusi nahi, are gutxiago inongo egoera tamalgarrian. Bidaia izpiritualik ere ez dut nahi, baina gutxienez neure burua argitzen lagunduko lidake.

Beharbada astia nuelako, beharbada Joãok Adela oroitarazi didalako, beharbada ibilian nembilela kafe etxe bat Interneterako sarbidearekin ikusi dudalako, barnera jo dut, alegia, Adelaren posta elektronikoa sartu naiz, zer suma (aspaldian ez nintzen sartzen, gure azken krisialdi afektibotik, esanguratsua izango da, baina dagoeneko apenas sorrarazten didan jakin-minik). Joãok eragindako gure behin behineko banaketak emaztearengan ere izan behar zuen eraginik (gurea, finean, horixe baita, behin behineko banaketa anaiak mozorroa ipini baldin

badio ere, eta nago behin betiko banaketa asko eta asko horrela hasten direla, erabaki irmorik hartzeko ezintasunetik); litekeena da Adela norbaitekin askatu izana, eta haren posta elektronikoan kuxkuxean ibili nahi izan dut... neure burua argitzeko, neure burua hobeki kokatzeko.

Eta to eta horra:

**Nork:** Adela

**Bidalketa gaia:** ostirala, 2010eko uztailaren 31 11:14

**Nori:** Eva

**Afera:** zuloak

ene, ene Eva

ez dakin ze gogoia dudan etxeko lanak amaitu, eta gurea itzultzeko, geure onera itzultzeko

baina gaurkoan bestelako zuloak aipatu nahi dizkinat:

Eme ez zabilen ongi, ez zakinat obrak uste baino gehiago eragin dion edo zerbait ezkututzen didan, inbertsio handia egin dinagu, gure aurreikuspenak biderkatu egin ditun eta batzuetan pentsatzen dinat zerbait paraleloa duela edo kezka handiren bat bestela, noizbait sumatu ere egin dinat Emeren fotokopia enpresa horrek porrot egin duela eta ez didala aitortu nahi

utzi behar haut, ez, utzi, berak utzi nain, João, badakin, Seteais gaixorik omen dagoela esateko deitu ziotenan, Frantziatik, eta ika-mika baten ostean, badakin, hara joan dun ni hemen hurrekin bakarrik utzita, horregatik eseri behar izan dinat hiri lerro hauek idazteko

baina esandakoa, utzi behar haut hain zuzen ere tti-kiengana joateko, esadan zerbait, otoi

mx beroa

**Nork:** Eva

**Bidalketa gaia:** ostirala, 2010eko uztailaren 31 13:13

**Nori:** Adela

**Afera:** Re: zuloak

Adela, nire erizain maitea.

Bazakinat posta elektronikoa biderik txarrena dela lasaitasuna eskatzeko, baina lasai hartzen saiatu. Badakin esaerak zer dioen: mudantza garaian, aldaketarik ez.

Lasai, beraz, obretan aztoratua egotea munduko gauzarik normalena dun, baina gogoan izan lehengo emailak, zuenean inoiz baino gehiago sinesten huela esaten hidan, ezta?

Izan pazientzia, akaso apur bat urruntzeko beharra izango zinan. Ez hartu presakako erabakirik, itzuli etxe berritura, toki zoragarria dun eta, kontatu didanagatik, ziur nagon primeran geratuko zaizuela.

Goza ezan eta gero gerokoak, eta orduan hasi Mariorekin hitz egiten, baina batik bat ez utzi zuen arteko isiluneak handi daitezen.

Zenbat denbora da ez duzuela egin...?

Ahal dunanean, bidali obraren argazkiren bat.

Zortetik onena eta 1001 musu.

Salazarren tonerra! Adela sorgin samarra da, edo haren begi klinikoa izango da bestela, eta negozioarena sumatu du nik ezertxo ere esan gabe (hasi berritan, perspektibak primera-koak ziren, baina gaur egun fotokopisteriak bideo dendak bezalaxe desagertzen ari dira, eta gurea bezalako enpresa tti-kiek nekez egin dezakete aurrera; megadendetan gaur egun eros daitezkeen inprimagailuek era guztietako zerbitzuak dakartzate: eskanerra, faxa, fotokopiak, eta baita enkoader-nazioa bera ere; baina, futxo!, ezin dute zerbitzu pertsonali-zaturik eskaini!). Guztiarekin, argi dago gurearen alde egin nahi duela, eta ez duela bestelako harremanik. Edo ez: izan dezake nik ezagutzen ez diodan helbide elektronikorik, eta adiskiderik minenari ere esatera aitortzen ez den sekreturik (beharbada Joãorengandik gero eta hurbilago nagoelako, ezta-

baidetan anaiak leporatzen zizkidanak datozkit gogora, 'Dramatiko hutsa haiz', edota, geroago eta sutsuago, 'Klase ertaineko komunista alaena!', edo 'Amen-amen jende horietarikoa haiz!'). Nik orain Amaliarena dudan bezala. Baina orain ez daukat hori guztia nori kontaturik, ezta Amaliari berari ere (Historia irakasle unibertsitatean... Ez, seguruenik onena izan da nork bere bidetik jarraitzea. Historia irakaslea izan nintekeen, izan nintekeenez, publikoan nahiz pribatuan, baina itxaropen handirik ez, azkenean atezain oposaketak atera, eta horrekin etsi nuen: to, egia. Porrota, porrota, porrota... Adelak diagostiko egokia egin du. Pues, pues, pues! Ez, egia ere ez, zeren ez bainuen unibertsitatean ikasi besteren aginduak betetzeko eta besteren fotokopiak kartara eta esklabo baten antzera egiteko. Baina erreprografia asko aldatu da oso denbora gutxian, eta enpresa handiak ttikienak azpiratu nahian dabilta, kate motzean nahi gaituzte, mozkin hutsalekin. Eta Manueli abuztua ordaintzeko ere lanak, eta egunotako gastuekin... Beharbada berez-berez datorkit Cariocamatika enpresakoei bost fotokopiagailu halabeharrez pack berean erosteari ezetza emateko erabakia. Ez dakit).

Erosketa batzuk egitera joan behar dut: lotarako pilulak behar ditut, eta beharbada haurrentzako zerbait erostea komeni zait (lehen ikusi dudan sorgin baten apaingarria Fatimarentzat eta egurrezko ezpata bat Federicorentzat?). Beharbada Adelari ere zerbait erosten ahal diot Maria etorri aurretik; erloju merkeren bat topatuz gero, horixe.

Lehen hartu ditudan oharrak gainbegiratu, eta ikusi dut 18:00etan irteten dela Baionarako azken tren. Eta itzuliko banintz, eta Adelarengana eta haurrengana lehenbailehen joko banu? Haienezako gezurren bat asmatu, Hendaian gaur gauean bertan Lisboarako tren hartu ahal izango nuen, eta berriro ere normaltasunari lotu... Ez jakin. Edonola dagoela

ere, Joãoek egingo du aurrera. Argi gabeko farola halakoa! Belar txarra berez irteten!

Nor izango ote da Maria hori? Nolakoa ote? Zein harreman izango ote du anaiarekin?